



>>>
**III. HAUSNARTU
EUSKAL SOZIOLOGUJISTIKA
SARIAK**

2

**SUGEA DANTZAN:
SHE 'S IN FASHION-ETIK
BILBAO EUSKARAZ-ERA**

Galder Unzalu Etxabe

Finantza arloko langilea

Helbide elektronikoa: gunzetz@gmail.com



“Lantxo onen amaitzat nere makaltasun baten berri emango dizutet. Iztegia egiteko arazo ta buruauste ta anka-jasotze andiak artu bear izan nituenean, enuen kemenik izan ijito-artean sartu ta ijito-euskalkia beren ezpainenatik ikasten asteko. Bein, orregatik (baina liburu hura argitaratu eta gero), Bilbo-inguruko Basurton beren artera urreratuz, amabi bat urteko nexkato batekin izketan asi nintzan. **Ea nongoa zen (Bayonaldekoa, erantzun zidan) — Ze izen zuen (Izena äntzi dut) —¿Oni nola esaten diozute? (Sungurra, erantzun zidan).** Ijitoen ezpainenatik ez tuz besterik ezertxe ere nire urte ugari auetan ikasi: sudurra ijitoeraz.”

R. M. Azkueren “Lamiak Euskalerrian”
liburuxkatik hartutako pasarte (1.927).
Bilbon – Eusko Argitaraldia

0. KOKAPENA

Bilbo eta euskara. Hiria eta hizkuntza. Espazioa eta komunikazioa. Baldintzak eta harremanak. Natura, naturaren moldaketa eta pertsonak.

- *Sugea*: hiriaren metafora, ibaian nolabait gorpuztua.
- *Dantzan*: mugimenduan dago, ez dago zehaztuta, ez da estatikoa, ezin da erabat planifikatu eta itxi.
- *She's in Fashion*: 2.004 - 2.005 urteetan Bilboko Udalak bultzatutako sustapen ekonomikorako arte erakusketa / kanpaina, hirian zehar arrosa koloreko artelanak eta promozio euskarriak zabaldu zituena.
- *Bilbao Euskaraz*: Bilboko Udalaren azken urteotako euskararen aldeko leloa.

Hizkuntzaren gaineko praktika eta ulerkerak eta hiriarri forma ematen dioten politika urbanistiko eta kontzepzioak. Esparrua zehaztu eta Bilbora azken 5-10 urteotan etorri diren bilbotar berriengan (2 bizkaieradun, 2 gipuzkeradun, nafarreradun bat, batuadun bat, katalan bat, holandar bat, ugandar bat, perutar bat eta boliviarr bat) ezarri da arreta, Bilbok hiritarrangaren proiektatzen dituen mezuak eurengan *kutsatugabeago* aurkituko ditugulakoan.

1. ESPAZIOAREN ERALDAKETA: SUGEAREN KONTORSIOA

Ez da berria Bilbon espazioen transformazio sakona eman dela eta ematen ari dela esatea. 80. hamarkadan hasitako eraldaketan Bilbok hiri industrialetik hiri postindustrialerako jauzia eman duela gogoratzea berria ez den bezalaxe. *Bilbao Ria 2000* sozietateak gidatutako prozesuan Abandoibarra da, *Guggenheim Museoa* goiburu duela, eraldaketa honen izar nagusia, baina transformazioa hiri - espazio guztietan atzeman daiteke. Ibaiaren garbiketa eta saneamendua oinarri hartuta, ibaiertzen atontze eta espazio publikorako irabaztea izan da beste oinarrietako bat, Metroarekin (eta Tranbiarekin, bigarren mailan) batera. Esan daiteke bere *izaeran* ere eraldaketa eman dela (*burdina-ontzioletatik titanio-high-pintxoetara*), eraldatze eta nazioartekotze prozesu honetan Guggenheimek totem edo katarsi funtzioa bete duelarik. Sinbolo berria du hiriak eta hiri-ilun eta usain txarrekoen arteko zerrendetan lehen adibideetakoa izatetik¹ Nobel sariak jasotzera pasa da².

Testuinguru honetan, ikerketaren lehen asmoa hiri eraldaketan aplikatzen ari den eredu antolaketa espazialerako posibilitate guztien artean bat gehiago baino ez dela eta espazio publikoa ulertzeko kontzeptualizazio zehatza barneratzen duela aztertzea da.

Hori horrela, interesgarria da Guggenheimaren eraikuntza diseinatu duen plangintza orokorra epe luzekoa dela ikustea. Guggenheim ikono

Ez da berria Bilbon espazioen transformazio sakona eman dela eta ematen ari dela esatea. 80. hamarkadan hasitako eraldaketan Bilbok hiri industrialetik hiri postindustrialerako jauzia eman duela gogoratzea berria ez den bezalaxe.

Hemendik abiatuz, aurrera egin eta azken urteetako hiri-eraldaketaren burmuin instituzionalak bere baitan hizkuntza-arrazionalitate bat txertaturik ote duen aztertu nahiko litzateke. Hots, eraldaketaren azpian hizkuntza-arrazionalitate edo ikuspegi bat dagoela esan dezakegu? Eta zertan oinarrituta?

duen hiri-eraldaketak azken hilabeteotan onartua izan den eta urteotako erantzunik zabalena (70 eragiletik gora bildu ditu *Kaleak Aske* ekimenak³) jaso duen Espazio Publikoaren gaineko Hiri-Ordenantza *erditu* du, bere baitan duen espazio publikoaren gaineko ikuspegia txertatuz. Hau da, azken hau Bilbon, Guggenheimek eta Abandoibarrak bere osotasunean izan duten eraldaketa espazialarekin koherentzian datorren Ordenantza gisa ulertu daiteke, espazio publikoarekiko kontzepzio bera baitago bai udal-arautegian horretan, bai Abandoibarra osoan, bai Alondegia berrian, bai urteotan antolatutako hainbat ekimen *arrakastatsutan*. Azken urteotan giza mugimendu zein herritar antolatu gabeen eskutik etorri diren hainbat erantzun, ulermen espazial horren beraren emaitza gisa kokatu ditzakegu baita ere: beste askoren artean, *Bilbao World Series* zirkuitu urbanoak kalte-uriko auzotarren zein Zirkuiturik Ez! plataformaren protestak⁴ horrela irakurri ditzakegu.

Era berean, hirian oihartzun handia duten eta lehen hurbilpen baten espazialak ez diren gatazka batzuk, klabe espazialarekin aztertuta ulertzeko bidean jarri ditzakegu. Esaterako, Bilboko Konpartsek nahiz auzoetako Jai Batzordeek dituzten arazo eta zailtasun asko (26.000 euro 2.010ean 39 auzotako jaietarako⁵) espazio publikoaren kontzepzioarekin lotuta daude: txosnak non jarri, baimenak, Inauterietako desfilea nondik joan, kontzertuak non, zein ordutegi...

Berrienak diren heinean, Abandoibarran, Bilboko plaza berrietan edo Ibaizetako paseoetan ikusten da argien espazio publiko honen funtsa. Eta zein da ba funtsa hori? Bada erabilpen askerako espaziorik ez uztearena hain zuzen. Erabilpen askeak arriskutsuak direlako eta horien bitartez, gatazkarik gabeko hiri eremu idealizatuaren eta hori sostengatzen duen *hiritar onaren* moralak, diskurtsoa eta ideologia kolokan jarriko liratekeelako. Erabilpen aske horren eremu izan daitezkeen berdeguneak horregatik egiten dira Bilboko mendi-gerrikoan eta ez Abandoibarran Ibaizabalen ertzean. Horrela, Udalak *hondartza berdea* deitu dio Larraskitu inguruan sortu duen San Antonioko parkeari⁶, baina gero Ibaizabalen inguruan azken urteotan sortu dituen pasealeku guztietan ez du *belar-espazio aske-hiritar-ibaia* elkarrizketa zuzena inon ere diseinatu. Jarraian kokatutako hiru argazkietan ikusten denez, hiritarrek *apropiazio ez-egokien*⁷ bidez aurkitzen dituzte planifikatzailearen asmoen gainetik pasatzeko erak, baina hiri-diseinatzailearen borondatearen produktua argia da.



Egun berean ateratako hiru argazki. Goiko argazkia-
ren eskuinean ikusten den eskulekuaren azpialdean
dago beheko argazkian ikusten den pantanaltoa.



Ibaiertzen diseinuak zaildu arren, gazteek aurkitzen dute non
eguzkia hartu begirada kuxkuxeroen babesean. Ezkerreko pan-
tanalean lau egun jarraituz behatu dira gazteak (ia beti neskak)
bertan etzanda eguzkia hartzen. Lehenengo argazkiko jenderik
ezarekin kontraste esanguratsua pantanaleko jende pilatzea.



Begira diezaiegun Abandoibarrako eta Kasilda Parkeko espazio berdeei.



Ezkerreko argazkian, emakume talde bat eta ezezagun bat beraien anonimaturako eskubidea eta "desatención cortés"8 deiturikoak egikaritzen Doña Kasildan. Abandoibarrako espazio berdeak (ezkerrean behean) ez daude erabiliak izateko diseinatuak, horregatik dira txikiak eta zuhaitz gazteekin atunduak. Hala ere, jendeak bere egin eta erabiltzen ditu, urruti ez dagoen Kasilda Parkea baino gutxiago hala ere. Bere garaian firma bilketa egon zen Kasilda eta Abandoibarra berdegunez lotzeko eskatuz, baina planifikatzaileak ez zuen eskaera onartu.



Toulouseko Garonaren ibaiertzak erakusten du (eskuineko argazkian) belarra, hiritarra, erabilpen askea, intimitaterako aukera minimo bat eta ibaiaren arteko elkarriketa posiblea dela hiriaren baitan.



Hiru faktore nagusi ditugu beraz espazioaren kontzeptualizazioak dakarren hiriaren sorkuntzan: planifikatzailearen diseinua, hiritarren erantzun eta apropiazioak eta espazioaren baldintza ekolojiko-naturalak.

Hemendik abiatuz, aurrera egin eta azken urteetako hiri-erlaldaketaren burmuin instituzionalak bere baitan hizkuntza-arrazionalitate bat txertaturik ote duen aztertu nahiko litzateke. Hots, erlaldaketaren azpian hizkuntza-arrazionalitate edo ikuspegi bat dagoela esan dezakegu? Eta zertan oinarrituta? Hasteko, Bilboren hiri-erlaldaketaren ikur diren azpiegitura eta ekimen nagusietan hizkuntza-ildo zehatz batekin egiten dugu topo. Nola ulertu bestela *Bilbao Exhibition Centre*, *Bilbao Arena*, *Alhóndiga* edo *La Paloma* bezalako azpiegitura izarren izendapenak? Edota *Bilbao World Series*, *Bilbao Night Marathon*, *Best!*, *She's in Fashion*, *Jet Lag Bio*, *BBK Live* ekimenak zein *Bilbao* markaren hobespena?

Beste bi aldagairekin ere egiten dugu topo. Bat agerian dugu, hain zuzen azken garaitan eraikin osoak estaltzen dituen publizitate euskarrietan. Hizkuntza lehentasunezko tresna dute eta Udalaren arautze faltagatik, euskararen desagertzea dakarte hiriaren hainbat eta hainbat fatxadetan⁹.



Hauxe 2.010eko udaberrian Bilbon fatxada oso bat estaltzen zuen eta euskarazko edukiak zituen (elebiduna) iragarki bakarra.

Bestea sakonean dugu, eta planeatzen diren eraikuntza eta azpiegituren hizkuntza eragina kontutan ez hartzeari dagokio. Horrela, dimentsio hori presente ez izate horretatik Abandoibarra euskararentzako *no-go* area bihurtzen ari ote den galdetzea zilegi zaigu, bertan kokatu diren azpiegiturak gaur egun euskarazko harremanak erraztasun minimo batekin sortu eta bideratzeko bereziki zailak diren eremuak direnez geroztik. Beste aukera askoren artean, Leioako Kanpuseko hainbat fakultate bertan kokatu balituzte euskararentzako eragina (bai praktikoa bai sinbolikoa) itzela litzateke. Potentsialitate horren lekuko litzateke nola elkarrizketatutako Ei-

leen gazteak (18 urte, boliviarra, hiru urte Bilbon) euskara Bilborekin Arangoiti auzoan lotzen duen (*betiko bilbotarren* loturak desafiatuz, bertan bizi izan du hiriko esperientziarik euskaldunena Irakasle-eskola fakultatean bisitaldi bat egin ondoren).

Finean, argudioa zein da? Egindakoaren eraginaz gain, ez-egindakoarena ere hartu beharko genukeela gogoan. Eta Bilbo berriaren balizko ikur den heinean Abandoibarra den eremu sinbolikoaren proiektzioa kontuan hartzeko modukoa dela. Eraldaketaren azken produktua dugun Alondegian ere antzeko egoera dugu: hirigintza eta euskararekiko arrazonomendu zehatza elkar loturik. Batetik diskurtso ofizialetan *Plaza es-tali* gisa inauguratzen da. Baina bestetik, azpiegitura ireki eta berehala kexak herritarren aldetik: kexak bertako langileek ume bati janaria ematen ari zitzaion ama bati kargu hartu diotelako, kexak bizikleta batekin bertara sartu nahi izan duen hiritarraren aldetik, kexak non jesarri ez dagoelako, kexak ilunegi dagoelako, kexak leku hotza delako... Plaza gisa sal-tzen dena ez dago plaza gisa erabiltzeko pentsatua, eta ezta ere bertan egoteko pentsatua (bankurik ia ez, iluntasuna...). Bertan egote horrek arazoak baitakartza berarekin: *nahi ez ditugun* horiek eraikinaren barruan denbora pasa egongo balira azpiegiturak kutsu *glamurosoa* galduko luke, eta hori inola ere ezin da baimendu. Horren adibide da ere nola alboko Arrikibar plazan zeuden bankuak berehala desagerrarazi zituzten aurre-tiaz etxerik gabeko batzuk bertan *egonkorturik* egon ohi zirela argudiatuta. Beraz, diskurtsoaren eta praktikaren arteko talka nabaria espazioaren kontzeptualizazioa eta horrek dakarren diseinuak eraginda. Mediateka kenduta, azpiegituraren gainontzeko erabilera posibleak ordainpekoak dira, hitzaldi, erakusketa eta jardunaldiak barne, eta hortik ere erabiltzeen sailkapen berri bat.

Horrekin batera, hizkuntzari dagokionez, nahiz eta inaugurazio era-kusketetan, hilabete hauetan antolatu diren jardunaldietan edota bozera-maileek esandakoetan aniztasunaren alde egin (aniztasun erlijioso edo hizkuntza aniztasuna espresuki aipatuz), gero hainbat zantzu ditugu on-dorioztatzeko euskara, askoz jota, bigarren mailako hizkuntzat hartua dela bertan. Inaugurazio eguneko itzulpen automatiko faltatik hasita (fran-tsesa eta ingelesa bai egon zirela aukeran¹⁰), egunkarietan irakurritako ke-xekin segi (lau langilerekin saiatu eta inork euskaraz egin ez ziolako bere ezinegona adierazten zuen Deia egunkarian zutabegileak¹¹), hurbileko bil-botarrek izandako esperientzia berdinarekin jarraitu eta eraikinaren gaz-telerazko izendatze hutsarekin bukatu: **Alhóndiga Bilbao** eta **hó** marka. Aniztasuna eta sorkuntza kultur programazioaren erdi-muinean koka-tzen duen azpiegitura garaikide-europarrak lekua ukatzen dio izendape-nean Bilbon ofiziala den eta ia 100.000 hitzun dituen beste hizkuntza ofi-zialari. Gaztelerazko izendatze huts honek izan zuen erantzunik Xabier Kintana euskaltzainaren eskutik¹², baina berriz ere, bazterreko gaitzat jo-tzen denez, ez du oihartzun berezirik izan aferak.



Alondegiaren sarrera nagusia inauguratu berri, batere bankurik gabeko, egoteko aukerarik gabe.

Interesgarria da, Delgadori jarraituz (2.007) nola diskurtsiboki aldarrikatzen den aniztasuna, berdintasunik eza ezkutatu eta aniztasun hori ukatzeko erabiltzen den praktikan. Eta ez hizkuntza aldetik soilik. Izan ere, Philippe Starckek Alondegia “bizitza bera da (...) Bizitzaren elementu organiko eta biologikoen nahasketa da”¹³ defendatu arren, ordutegia, zaindariak eta atea ixten dituen bizitarik zein plazarik, estalia izan edo ez, ez dugu ezagutu orain arte.

2. BEGIRADA TALKA BILBOKO HIRI IMAGINARIOAN: SUGEAREN MINTZOA

Teresa del Valleri jarraituz¹⁴ Bilboko euskaldungoa Shirley eta Edwin Ardenerrek definitutako *talde mutu* baten gisa kontzeptualizatuz jardungo dugu jarraian. Gure hiriko euskararen historia sozialari begiratuta eta gaur egun errealitate soziolinguistikoa ezagututa, euskaldungoa *talde mutu* horietako bat (beste asko bezalaxe: emakumeak, etorkinak, jubilatuak...) bezala ikusteko datu dezente daude. Horietan argiena: euskararen ezagutza %24,2 eta ia ezagutza %18¹⁵ den bitartean, kale erabilera %4,3¹⁶ da. Zerbaki begiratzeaz gain, hiriaren erabakigune politiko, ekonomiko, sozial edo mediatikoetara begiratzen badugu euskarak ez du sarbiderik bertan. Eta emakumeari etxean, familian, baloreen transmisioan, finean, pribatutasunean espazialki asignazio batzuk egiten zaizkion bezala, euskarari ere, asignazio simboliko (identitate/ideologia politikoaren markadorea, jaiak, familia, sentimenduak) eta funtzionalaz gain (hezkuntza, umeak, eus-

Euskarari ere, asignazio sinboliko (identitate/ideolojia politikoaren markadorea, jaiak, familia, sentimenduak) eta funtzionalaz gain (hezkuntza, umeak, euskal kultura), asignazio espazialak ere egiten zaizkio (auzoetako leku zehatz batzuk, hezkuntza zentroen inguruneak, euskararen aldeko mugimenduek sortutako azpiegiturak, taberna eta denda batzuk...), beti ere hiriaren gune zentralak ukitu gabe (Abandoibarra, Alhóndiga, BEC, La Paloma, luxuzko jatetxeak, pleno-aretoa...).

kal kultura), asignazio espazialak ere egiten zaizkio (auzoetako leku zehatz batzuk, hezkuntza zentroen inguruneak, euskararen aldeko mugimenduek sortutako azpiegiturak, taberna eta denda batzuk...), beti ere hiriaren gune zentralak ukitu gabe (Abandoibarra, Alhóndiga, BEC, La Paloma, luxuzko jatetxeak, pleno-aretoa...).

Ikerketa feministen bidea segituz, Teresa del Vallek desberdintzen dituen azaleko eta sakoneko egituren sailkatzetik atera ditzakegu euskararekiko asignazio funtzional eta espazialak ulertzeko klabeak (hemen bai, hor ez; honetarako bai, horretarako ez). Azaleko egiturek estereotipoen eta moda desberdinen argitara jasandako moldaketak aztertzetik gehienbat. Adibidez Bilboko Udalaren euskararen aldeko politiken azterketatik. Sakoneko egituren azaleratzea, nola edo hala hiriaren imaginarioaren oinarri ezkutatuak lirartekeen azaleratzea, Del Vallek aitortu bezala, askoz zailagoa da, azaleratzen ditugun une berean sakoneko izateari uzten baitiote.

Ikuspegi erduetan murgildu baino lehen, guztiz txertagarria zaigu Delgadok (2.007) *zibismoaren* ideologia eta diskurtsoari egiten dion kritika. Eta zer ikusi du ba *zibismoak* eta euskararen gaineko ikuspegiaren arteko dialektikak? Bada, egitura sakon edo agerikoak direla medio, gaur eguneko hizkuntzen arteko harremanak, *naturalizat*, *kulturalizat* edo *betikotzat* jotzean, Udalaren euskararen aldeko politiken edo gainontzeko udal politiken hizkuntza – arloak kritikatu eta euskararen berreskurapen integrala eskatzen duten norbanako zein taldeak automatikoki *inzibikoen* eta *kontsentsuaren* eta *hiritargo onaren* kontrakoen *taldean* ezarriak izateko arriskuan eroriko direla, hain zuzen Espazio Publikoaren Ordenantza Berriak aldarrikatzen duen *zibismoaren* argudio berberarenpean.

Hiriaren antolaketa espazial berriaren azpiegituren izendapen-gatazkan ikusten da agian argien bi eremu ustez harreman-gabeen lotura. Izendapen-gatazka, espazio publikoen gaineko gatazka zein gatazka estetikoa ere baita aldi berean. Estetika eta gustu estetikoa boterearen eta klase posizioaren (eta beste posizionamendu askoren, izateko era askoren¹⁷) isla bezala ulertzen badugu behintzat. Eta hortik aurrera eginez, hizkuntza gatazka, gatazka estetiko ere bihurtzen da¹⁸. Ez baita berdina eraikuntza bat izendatzeko *BEC* esatea edo adibidez *Erakustazoka* esatea. Elkarriketatuen artean, Bilbon bi urte bizitzen daraman Mireia katalanak honakoa zioen Palau Sant Jordiz galdetuta:

¿Si te dijese, si oyeses a alguien decir en vez de Palau Sant Jordi, Palacio San Jorge qué dirías?... no me sonaría nada bien, no... no, es que yo creo que es así, sin más, es que no tiene traducción... y si en vez de Euskalduna Jauregia oyes Palacio Euskalduna... me suena igual, o sea me suena igual, no me extraña... (Mireia, ia 3 urte Bilbon.).

Bidenabar, Armando Silak Bogotako imaginarioa aztertzean kaleen *sexualizazioaz* plazaratutakoa gogoratuz:

La carrera 15 es femenina, mientras la carrera 10 en el centro es masculina, estan construyendo, bajo un mundo de una forma humana, dos caracteres opuestos,

los bogotanos han antropologizado un espacio, han hecho de la calle un signo de otra cosa, del sexo de la ciudad (...) Lo imaginario dentro de la imagen de una ciudad, marca un principio fundamental de percepción: la fantasía ciudadana hace efecto en un simbolismo concreto. (Silva, 2.001, 398. or.)¹⁹.

EHUren Leioako kanpusa edo erabilera anitzterako espazio zabal bat Abandoibarran kokatu izanak euskararentzako erabat bestelako ondorioak ekarri zitzaizkela nola ez ondorioztatu?

Jo dezagun segidan hirian aurki ditzakegun hiru diskurtso multzo-tipoak zerrendatzera.

2.1. Erbi - ehizan: Udalaren ikuspegi berritzailea

Bilboko eguneroko mediatikoa apur bat jarraitu ezker eman dezake Bilboko Udalak euskararen aldeko lan nekaezina egiten duela. Euskara zinegotziaren hitzei jaramon eginez elkarlanean oinarritutakoa gainera: "hemos aprendido que la clave de los éxitos, por parciales que sean, reside en la coordinación de todos los esfuerzos en una misma dirección. Bilbao lo pide"²⁰. Nolanahi, hiritarrak (euskaltzaleak oso argi) nolabaiteko kontradikzioak ikusiko ditu Bilboko Udalak darabilen diskurtsoaren eta bestelako zantzu batzuen artean.

Hasitako ildoaren arabera, Bilboko Udalaren euskararekiko ikuspegia espazio publikoaren arloan edo Alondegiaren inaugurazioan erabilitakorekin hertsiki lotuta ulertu behar dugu. Hiritarrentzako espazioak sortuko ditugu, baina hiritarrek (edo hiritar guztiek) erabili ahal izan gabe. Edo guxienez espontaneoki eta Udalaren interbentziorik gabe erabili ahal izan gabe. Bada, euskararen arloan berdin: euskararen alde egiten dugu (deklaratiboki) baina euskarari inongo esparru berritan leku zentralik emateko asmorik gabe, horietan *naturaltasuna* gazteleraren esku utzita, proiektio internazionalako egitasmo-ekimenetan salbu, non ingelesak hartuko duen toki nagusia. Horixe da Bilboko Udalaren euskararen aldeko praktikaren oinarria. Asignazio funtzional eta espazial zehatz hauen adibidea izan daiteke Turismo Sailaren ekimen guztien izenena (denak ingelesez). Adibide nabarmena ere **Bilbao** Udal aldizkariarena. Bere ibilbideari jarraipen txo bat egiten badiogu, ikusiko dugu asko jota euskararen presentzia %5ekoa izan ohi dela, pare bat zutabegile eta literaturari loturiko artikuluren batekin normalean (2.010eko ekainerarteko 6 zenbakietan horrela izan da: bataz beste euskaraz bizpahiru orri 50 inguruko agerkarian; ekainekoak errekor guztiak hautsi zituen: euskarazko 3 orri 63ko totaletik).

Indartsuena baina **Bilbao** markaren kasua dugu. Bilboko Udalaren euskararekiko diskurtsoa, praktika, estetika eta izendapenak guztiak batera kondentsaturik agertzen zaizkigun elementua da **Bilbao** udalaren logo korporatiboa. Zergatik? Euskaltzaindiaren hobespenaren gainetik eta euskaldunon praktikaren ia totalaren gainetik jauzi eginda, Bilboko Udalak **Bilbao** hitza hautatu zuelako hiriaren marka korporatibo bihurtzeko.

Bilboko Udalaren euskararekiko diskurtsoa, praktika, estetika eta izendapenak guztiak batera kondentsaturik agertzen zaizkigun elementua da Bilbao udalaren logo korporatiboa. Zergatik? Euskaltzaindiaren hobespenaren gainetik eta euskaldunon praktikaren ia totalaren gainetik jauzi eginda, Bilboko Udalak Bilbao hitza hautatu zuelako hiriaren marka korporatibo bihurtzeko.

Hiri osoari egiten zaio erreferentzia, hiri-imaginarioa markatzeko edo hiri-imaginarioari hizkuntza bat lotzeko ariketan. **Bilbao** izena hobesteko arudioak berriro ikus ditzakegu Foru Aldundiak **Bilbao Arena** izena hobetsi duenean Miribillako Kirol Aretoa izendatzeko:

Por su posicionamiento comercial y público (...) posicionamiento ante la ciudadanía (...) polivalencia y modernidad (...) visualización (...) referente de la ciudad para el cliente de nuestro entorno cercano y medio (...) sencillo de recordar (...) posicionarnos adecuadamente para ser incluida en las asociaciones y grupos de interés de carácter estatales e internacionales de instalaciones de este tipo (...) nombre corto (...) cercano al ciudadano (...) fácilmente vinculable a la imagen corporativa utilizada por el Ayuntamiento y entidades municipales.²¹



Bilboko logoa "Bilbao" hitza agertu gabe. Logo hau berbera aplikatu ahaliko litzazioke "Bilbo" edo "Bilbao"-ri.

Azpiegitura berrien edo Bilbon aurrera eramaten diren ekimen *arrakastatsuen* izendapenetan ematen dena errepikatuz udalaren hainbat politika eta ekimenetan euskara bazterreko bihurtzen zaigu (paseo gidatu-teatralizatuak, polikiroldegietako ikastaroak, hainbat eta hainbat ekimenetan hizkuntza irizpiderik eza...). **Bilbao Turismoren** ekoizpenak dira baina ikusgarrienak: *Bilbao Convention Bureau*, *BilbaoCard*, *Bilbao Newsletter*... Estetika eta izendatzeak (burokrataren botere nominatiboa, Mauss/ Bourdieu) pentsamendu baten eta politika orokor baten erakusgarri besterik ez direla erakutsiz.

Hau horrela, Udalaren hizkuntzen arteko nolabaiteko kontzeptualizazio hau kokatzerakoan, Bourdieuk hizkuntzen unibertsalizazio aspirazioez esandakoa interesgarria izan daiteke: hizkuntza zehatz bat edo kultura zehatz bat unibertsalitatean sartzean, unibertsaltasunaren monopoliora darama *legitimoa* bihurtu dena eta gainontzeko guztiak ezduin izatera daramatza (okzitanoarekin ikertu zuen bezala). Zergatik ez dugu ulertuko *BEC*, *Alhóndiga*, *La Paloma* edo *Jet Lag Bio* izenak erabiltzerakoan, *legitimoa* den begirada *puruaren* jabe izanda, eta izendapenaren monopolioaren bitartez, unibertsaltasunetik at uzten dela euskara? Eta zergatik ez pentsatu, habitusak (sozialtasuna indibiduoari txertatzen zaion bidea den heinean, diskurtsotik kanpo aritu eta subjektua bere posizio sozialaren arabera akziora eta pertzepziora eramanez) hizkuntza bat edo beste erabiltzera edo ez-erabiltzera eramaten duela bilbotarra? Eta hain zuzen, Bilbon nagusia den doxak (*aquí nunca se ha hablado euskara*) habitusean txertatuz gure hizkuntza-praktikak baldintzatzen dituela? Eta aldi berean hiriaren eraikuntza/eraldaketa espazialak bere baitan txertaturik duela hizkuntza ezberdinentzako posizioen araberrako nolabaiteko naturalizazio bat?

Ikerketa feministek erakusten dute naturalizazioak menpekotasunak sortzeko duen indarra. Gero espazialitatean eta pribatu/publiko dikotomian bere erakusleioa duena. Lourdes Mendezek edertasunaren kontzep-

tua naturalizazio prozesu bat besterik ez dela eta naturalizazio sexual eta intelektualak emakumeen bazterketarako oinarriak ezarri zituela ikertu bezala²², hizkuntzarekin antzeko prozesu baten aurrean geundekeela pentsatzeko zantzuak baditugu. Eta ildo honetan, Udalak, eskusio berri baterako orubeak prestatuz, haur, gazte eta kultur arlo zehatzez gaindi, euskara lekuz kanpo ikusten du, eta ez dio naturalizazio eta asignazio horietatik irreteko esparrurik eskaintzen.

2.2. Azal - joko: Tradizioaren pagotxa

Bigarren multzo gisa historikoki hegemonikoa izan den diskurtsoa ezarri dezakegu: Bilbon gazteleraz da hizkuntza bakarra, are gehiago, beti egin da gazteleraz eta inoiz ez euskaraz (“era un idioma de campesinos, y en Bilbao no se hablaba pero por la elección de sus anteriores habitantes, refrendada por las generaciones sucesivas y hasta hoy”²³), eta gehienez, Bilbon bizi diren inguruetatik etorritako baserritarrek (euskalhiztuna = *aldeano*) hitz egiten dute euskaraz. Izan daitezke egunean bertan beraien produktuak saltzera datozen baserritarrak, edo izan daitezke Bilbon bizi diren eta *kanpotik* etorri diren euskaldunak, asko jota beraien artean, eta normalean etxean besterik hitz egiten ez dutenak. Azken urteotako euskararen berreskurapenak diskurtso honen moldaketa ekarri du, eta egi sozial berrien ezarpenaz gain (Teresa del Valleren [1.997] ageriko egituren moldaketak?): *euskaraz aritzen direnak edo beti aritu nahi dutenak abertzale fanatikoak dira* edo *euskara bai baina inposaketarik gabe* —inposaketa zer den definitu gabe— aurreko egi batzuk (Del Valleren [1.997] sakoneko egiturak?) zalantzan ez jartzean oinarritzen du bere bertsio berria.

Bilbon XX. mendean nagusitu den ikuspegi honen oinarrian hirian euskarak jasandako gutxiespen eta ordezkapenaren oinordetza dago (Agurtzane Elorduik²⁴ Hego Uriben aztertutako prozesuaren bertsio bilbotarra). Gutxiespen eta ordezkatzeko horrek baditu baina lekukotza edo mugari garrantzitsu batzuk gaur eguneko errealitatera diskurtsoaren moldaketa baten bidez heldu zaizkigunak, eta moldaketa-eguneratze horiei esker, mugari horien oihartzuak birsortu eta zabaldu egiten dira Bilboko hiri imaginarioan.

Batetik ezaguna da Unamunok euskararen inguruan esan zituenak Bilbon itzal luzea eduki dutela. Alkateak berak askotan ekartzen du gogora don Miguel²⁵, eta horrela, gaur egun hirian Unamunoren eskulturen gaindosia dugula ere esan liteke (gutxienez 5 oroigarri/eskultura). Joxe Azurmendik “Espainiaren arimaz” liburuan²⁶ xehe-xehe aztertzen ditu Unamunok euskarekiko izandako posizioak, konplexuak baina agian esaldi honek laburbildu ditzakeenak: “el vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida. No os apesadumbre que desaparezca su cuerpo, pues es para que mejor sobreviva su alma”²⁷. Bere liburu asko euskararekiko ikuspegi honekin daude bustita goitik-behera, esaterako:

***Bilboko literaturan
(kostunbrista deitu
dezakegun horretan) zein
hortik kanpo nahi beste
adibide topa ditzakegu
euskararekiko
mespretxua,
euskararekiko gutxiespen
sinpatikoa, euskaldunen
aldeanizazioa edota
Bilboren euskararekiko
arroztasuna gorpuzten
dutenak.***

* **Paz en la Guerra** (1.897): "Ni ella sabía castellano, ni él vascuence, y era un juego para los dos repetir las pocas frases sueltas que cada cual conocía del idioma del otro.

- ¡Buenos días!
- ¡Egun on!
- Bilbaño loco, burla aldeano.
- Nescacha polita, ederra...

(...) Y sobre todo los ojos, jaquellos ojazos de vaca, en que se reflejaba la calma de la montaña! Era como un producto de la aldea, condensación del aliento de las montañas; estaba amasada con leche de robusta vaca y jugo de maíz soleado." (103-104 or.)

Dena dela, Unamunok berak esandakoez gain, bere itzalaren aldarrikapenak du *bilbotartasunaren* zigilua. Nola ulertu bestela Juan Pablo Fusi Aizpúruak *Paz en la Guerra* eleberriaren hitzaurrean gai guzti hauetan arazoia ematea idazleari (1.988ko berargitaraldian):

"Se podría decir que, al fijarse sólo en las gestas de los vascos universales, ignoraba la intrahistoria vasca (...) Llevaba razón, igualmente, cuando decía que los vascos habían utilizado de siempre el castellano (o el francés) como vehículo de expresión; (...) cuando decía que Bilbao hablando en vascuence era un "contrasentido" (Fusi, 1.988, 14. or.).

Arrantzaleek Ternuan eta Islandian euskara errotzat zuten bi pidgin nola sortu zituzten galdetzeaz gain, garai, datu, giro eta errealitatearen aldaketen kontrako horrenbesteko erresistentzia duten afirmazioak nola ez hartu sakoneko egituratzat?

Bilboko literaturan (kostunbrista deitu dezakegun horretan)²⁸ zein hortik kanpo²⁹ nahi beste adibide topa ditzakegu euskararekiko mespretxua, euskararekiko gutxiespen sinpatikoa, euskaldunen *aldeanizazioa* edota Bilboren euskararekiko arroztasuna gorpuzten dutenak. Unamuno ezagun egin aurreko **Album de unos locos** Baldomero de Goyoagak idatzitako liburuan adibidez³⁰ adibidez:

"Mezié quedaba en conversación con el de la botella, pues aunque no habla vascuence, como se expresa perfectamente en el lenguaje de los perros no dudo que habrá conseguido entenderse con el rapaz aquel." (168 or.) edo "así como alrededor de una gran capital todo es movimiento, actividad y civilización, así también en las cercanías de estas agrestes montañas no se encuentra más que apatía, ignorancia y fanatismo. Por eso, el distrito de Arratia, debido sin duda a su vecindad con Gorbea, es tan salvaje." (186 or.)

Euskaldun askok etxean erabili duten euskara Bilbon kalea zapaldu orduko *ahaztu* egin izan dute, eta beste askok ahazte hori etxera eramán eta transmisioa eten dute. Zergatik ahazte eta etete hauek? Ba askoren artean, hiriarren gaztelerarekiko trakzio - indarrak, gutxiespen historikoak, XX. mendeko bi diktaduretako zapalketak eta haren oroimenak, kalean alde-nizatuak izatearen estigmak, honekin zuzen-zuzen harreman dagoen klase estigmak eta borrokak, inguruetako askoren hiritartze bat-batekoak... sakoneko lana egin dutelako. Hau da, guzti horrek imaginario he-

gemoniko honi aurre egiteko ahiturik eta indarge utzi izan du Bilboko euskaldungoaren gehiengo, azken hamarkadetako erantzunak eta ikuspegi berriak heldu diren arte.

Honen adibide J. Miomak³¹ Deustuko *Prest!* aldizkarian bildutakoa (Manuel Lekuonak 1.936an Elorrietako parrokoaren neurketa baten harira idatzitakoak; eliztarren %37 euskalduna izaki, %10ek baino ez zuen etxean euskaraz egiten):

“Umetxu bat ixaten dabenian, beriala euzkerazko ixenakaz ugutzau edo batiyauten dabe, ta gero erdereira irakasten dautsae, ta euzkera bixi dan ala ez ezta gauza eurentzat. Eta ederra da gero, euzkeraz ixena eruan eta euzkera ez-jakitia. Ori zer dala-ta? Gurasuak abertzaliak dirala erakusteko bakarrik?” (J. Mioma, *Prest!*, 11. or.)

Esan dugu mugari eta giro orokor honek ezarritako oinarriak gure egunetararte heldu zaizkigula, moldaturik eta nolabait *aurkezgarriago*. Adibide bat *El Correoren* 2.006ko urtarrilaren 28an argitaratutako “Bilbao o Bilbo? Políticos, intelectuales y músicos opinan para El Correo acerca del dictamen de Euskaltzaindia sobre la denominación euskérica oficial de la villa” kronikan ikus dezakegu. 9 iritzi jasotzen dira guztira, eta bi artista euskaldunen iritziak kenduta, beste iritzi guztiek *Bilbao*-ren alde egiten dute. Gutxienez hiru ondorio atera ditzakegu erreportaje honetatik:

1. Goyoagaren euskararekiko gutxiespenaren hazia eta Unamunoren unibertsalizaziorako gaztelaren beharra argi asko ikusten da **Bilbori** atxikitako balore askotan (“aldea”, “arcaico”, “precivilizado”, “agresivo”, “grito de guerra de los gabon”, “bala de cañón de cuando el sitio de Zumalacárregi”, “quieren inventar vocablos nuevos y marcar la diferencia para distanciarse del castellano”, “siempre ha sido Bilbao”, “suena mejor”...)
2. Polemika sustatzen da polemikarik ez dagoen lekuan (Euskaltzaindiak bere *eskumene*ko hizkuntzaren gainean arautzen du) eta inposaketaren mamua haizatzen da.
3. **Bilbao** udal markaren aukeraketaren alde unibertsaltasuna, internazionalizazioa eta komertzialtasuna aldarrikatzen diren arren, hainbat iritziren azpian XIX. mendetik datorren mentalitate tradizional-hegemonikoa dagoela pentsatzeko arrazoiak badaude, bi argudio motak nahastuta agertzen direlako zenbaitetan eta kontzeptu *tradizionalak* erabiltzea (*aldea, arcaico, sonoridad, invención...*) politikoki ez-zuzena litza-tekeelako arduradun instituzionalen ahotan.

Oinarri hauekin “aquí nunca se ha hablado euskera” *doxa* edo *egi konpartitu* hori elikatzen ari den euskararen naturalizazio prozesu bat ez ote dagoen planteatu daiteke. Bilbon ezaugarri partikularrak hartu dituen, baina orokorra dena. Naturalizazio prozesu honen zutabeetako bat hizkuntzaren beraren balizko gaitz, muga eta ezintasunak azpimarratzea litza-

**Ahots eta bide
bateraturik ez eduki
arren, ertzetatik ari diren
euskararen aldeko
mugimenduek urrats asko
eman dituzte Bilbon eta
horrela, presentzia
mediatikoaren eskasiak
ez du esan nahi Bilboko
imaginarioan euskararen
aldeko ekimen eta
ahotsek bere lekua egiten
ari ez direnik.**

teke³². Prozesuaren oinarria euskararen ezintasun eta galgalk hizkuntzari be-
rari (eta hiztunari) egozteak litzateke, faktore politiko, sozial, kultural zein
ekonomikoak aipatzea sahietsiz: euskararenak bereak dira arazoak, *natu-
ralak* ditu zailtasunak (eremu pribatura minorizatu izana, ustez baserri gi-
rora mugatu izana, adaptazio eza...). Berrikiago, *hizkuntza komunaren az-
piko idioma autonómico, regional* edo *local* izaera³³... mailakatze eta
naturalizazio berrietarako erregai lirateke.

Funtsean baina, nora heldu nahi dugu?

También en las cosas de la cultura, y en particular, las divisiones y las jerarquías sociales del Estado, que instituyéndolas a la vez en cosas y en los espíritus, confiere a un arbitrario cultural todas las apariencias de lo natural.³⁴

Hau da, gutxienez XIX. gizaldiaren bukaeratik datorren eta etengabe
eraikia eta elikatua den arbitrio bat izanik, *naturalizat* jotzen den *doxa*
(errealitatearen onarpen pasiboa, egia ukazina, eztabaidatugabera eta
zentzu komunean ezarria dagoena) bat badugula Bilbon, hain zuzen, Bil-
bon beti gazteleraz egin delakoa ia eskusiboki (milaka galego hiztunen
errealitatea ezkutatzean ere oinarrizten da doxa hau). Gehien jota euskal-
dun gutxi batzuk, ia beti baserriarrek edo haien ondorengoek, erabili
dute euskara. Azken garaiotan bereziki zaratatsuak diren hiztunak, *eurei
dagozkien eremu naturaletatik kanpo* beraien hizkuntzaren erabiltzaile / prak-
tikante gisa agertzen diren unetik *baserriar sinpatiko-onaren* roletik atera eta
gatazka-eragile bihurtuz *hiritar onaren* morala hausten ari direlako.

Doxa hori sinismena da, eta batzutan ideologiaren mailara pasatzen da
bere bloke diskurtsibo eta guzti. Sinismenak hiri berria praktikatzan dugu-
nean gure gorputzean, gure baitara barneratzen ditugu, eta Bilbo berrian
euskarari dagokionez azpiegitura nagusienak, euskara ia erabat baztertu,
edo gutxienez, bigarren mailako elementu dekoratibo edo jasan beharreko
zama bat bezala irudikatzen dutenean, ikuspegi hegemonikoak elikatzen
duen doxa indartzera datoz.

2.3. Metamorfosi bila: uholde arriskua

Euskararen aldeko mentalitatea ez bezala, euskararen aldeko diskurtsua,
presentzia mediatiko-politikoari dagokionez, bazterrekoa da Bilbon. Beste
kontu bat da herritarren bizipenetan bazterrekotasun hori bere horretan
mantentzen den. Ahots eta bide bateraturik ez eduki arren, ertzetatik ari
diren euskararen aldeko mugimenduek urrats asko eman dituzte Bilbon eta
horrela, presentzia mediatikoaren eskasiak ez du esan nahi Bilboko ima-
ginarioan euskararen aldeko ekimen eta ahotsek bere lekua egiten ari ez di-
renik. Hau da, diskurtsu instituzionala eta hegemonikoarekin batera, eus-
kalgintzaren praktikak hiriaren imaginarioaren baitara bere mezu,
esperientzia eta bizitzen multzoa dakar, nolabait bere tokia aldarrikatzen
ari dena. Ezkutuan egonda mediatikoki existitzen ez denak (Aguilarrek

Mexikoko prentsan *hiriaren* presentziaren desagerpenarekin detektatu bezala³⁵) baditu bere zabalpenerako bideak, askotan eraginkorrakoak direnak.

Lehenik eta behin, herritarren bizipenek osatzen baitute funtsean hiri, domestikatu gabeko bizipenek. Eta euskalgintzaren dinamikak, herritarren espazioen *urratzeak* eta Bilboko euskaldunen eta ez-euskaldunen bizipen eta harremanek errealitatea sortzen dute, nahiz eta horrek oraindik ere mediatiko-formalki presentzia nabaririk ez izan. Imaginarioaren izaera gatazkatsuak bizipenen emaitza besterik ez du islatzen, eta ondorioz, imaginario multiforme, kontrolaezin eta konplexu horren garapenak ekarri du euskararen lekua bertara. Eta horren moldaketak ekarriko du balizko zentraltasuneranzko mugitzea. Bilbon errealitate gero eta indartsuago den eleantiztasunak bere lekua egingo duen bezalaxe imaginario horretan bertan.

Ildo honekin interesgarria da aztertzea nola ziuraski Arestik eta Pott Bandak euskara Bilbori lotu zioten eta horren emaitzak orain ikusten ari garen. Adibidez *El Correok* Bilbotik, Bilbon edo Bilbori buruz euskaraz idazten duten idazle batzuk jada marka *etnikorik* gabe aipatzen ditu, hots, jada idazle prestigiotsuen artean aipatzen ditu talde bereizirik egin gabe edota *euskara* edo *euskal* hitza atxikitu gabe³⁶. Sortzaileen arteko hierarkian euskarazko idazleek gora egin dute horrela, markatzailea galduta. Hona Lourdes Mendezi Berrian jasotakoa:

Beste arlo batean ere islatzen da sexuen arteko hierarkia: gako etnikoan. Ustez ez-etnikoak diren gizon artistak daude. Artearen munduan mailarik altuenean kokatuta daude. Arte garaikideari dagokionez, gizon artista estatubatuarrak eta gizon artista alemaniarak dira horiek. Beste herri batzuetako sortzaileak artista etniko gisa sailkatzen dituzte. Esate baterako, artista afrikarrak³⁷.

Honek zer pentsatu eman eta ertzetik erdigunera jaitsi eta zentralitatea irabazteko arrastoan dagoen eremuetako bat euskarazko literaturarena dela ondorioztatzen digu. Hainbestera non diskurtso instituzionalak eta hegemoniko-tradizionalak onartu besterik ezin izan duten egin eta euren ere txertatu. Kirmen Uribe edo Jon Arretxe bezalako idazleen *desetnifikazioa* (hots, jadanik idazle bakarrik dira, *gure* idazle) onarpenaren marka litzateke, imaginario *bilbotar* osoaren harrera seinale. Ildo berean koka dezakegu 2.009ko urte bukaeran Bizkaiko Foru Aldundia euskarazko literatur solasaldiak antolatzen hasi izana Foru liburutegian, hain zuzen, Bilboko erdigune sinboliko-finantzieroan (orain arte literatur solasaldi horiek euskara elkarte edo euskaltegien ekimenak izan dira, beti ere hiriaren ertzetan kokatuak – ertz espazial edo sinbolikoak).

Hausnarketa modu horri jarraituz, hiru argitalpen historiko-linguistikoko aipa ditzakegu mugarri berrien funtzioa joko dezaketena. Zergatik? Hiru liburu hauetan diskurtso hegemoniko eta instituzionaletan oinarri diren hainbat *egi* erabat gezurtatzen direlako. Argitalpenok euskararen historia urbana kokatzen dute Bilboko udalerraren esparruan, non eta printzipioz euskararen historia sozialik egon ez den ingurunean, non eta euskaldun bakarrak *kanpoko* baserritarrek edo baserritarren ondorengoak

Bilboko hiri imaginarioa ere bukatu gabeko apropiazio eta desapropiazioen tentsiodun emaitza genukeela esango genuke. Ibaiaren korronea bezalakoa. Sugearen sigisagaren antzekoa. Funtsezkoa baina, hurrengo da: ikuspegi diferenteek elkar elikatzen dute, gatazkan daude eta muga lausoak dituzte.

ziren eremuan, non eta antropologia feministari jarraiki, espazioen asignazioan euskara eremu pribatuko fenomeno zen hirian. Hau da, hizkuntzen arteko harreman historikoen eta gaur eguneko argazkiaren naturalizazioa eta jarraian datorkion asignazio funtzional eta espaziala kolokan jartzera datoz eta horregatik dira garrantzitsu. Mendezek naturalizazioaz dioena nola ez ulertu hemen aplikagarri:

La moderna idea de naturaleza no se reduce, como la anterior, a pensar sobre "el lugar de los objetos", pretende además que cada uno de ellos, como el conjunto del grupo (del que forma parte) está internamente organizado para hacer lo que hace, para estar donde está. (Méndez, 2.004, 21. or.)

Hizkuntza bakoitza *dagokion lekuan dago, dagozkion funtzioekin, naturalki*. Labur – labur aipatu ditzagun Bilbo eta hizkuntzen arteko balizko harremana eraikuntza prozesu zehatz baten produktua dela erakustera datozen argitarapen horiek.

• **Bilbotarron euskararen Zuzuan.** Iñaki Gaminde (2.004) ikerlariak honakoa erakusten du: bilbotar baserritar euskaldunak hiriaren zati *endogeno* dira eta *ez kanpotik etorritako bisitari exogeno*. Diskurtso hegemonikoarekin talka egitera datorren egitatea: bilbotar baserritar oro ez da *txorierricoa* ("En Carnaval lo más socorrido era disfrazarse de aldeano, especial de chorierrico")³⁸, eta kaletarra bezain bilbotarra da.

• **Intelektuala Nazioa Eraikitzen: R. M. Azkueren Pentsaera eta Obra.** Jurgi Kintanak (2.008) R. M. Azkueren ibilbide eta intelektual figura ezin sakonago ikertzeaz batera, mugarri bat ezartzen du: euskara hizkuntza publiko, urbano eta komertziala da Bilbon gutxienez orain dela 120 urte.

• **Bertan Bilbo: Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. Mendeko historia.** Bertan Aitor eta Pedro Zuberogoitiak (2.008) honakoa ezartzen dute: Azkuek beste batzuekin hasitako euskararen aldeko ekimenen kateak XX. mende osoan iraun eta XXI. mendera ekarri du euskararen presentzia publikoa Bilbon. Hiritar euskaldunak badira, eta hortaz gain antolatu eta euskararen aldeko dinamikak sortu dituzte errejimen politiko edo estatus politiko zehatza gora-behera.

Hiru diskurtso motaren sailkapena egin dugu. Fikziozkoa den hiri imaginarioan gatazkan arituko liratekeen hiru fikziozko modelo. Donald McNeillek dioenari jarraituz "if we accept that spaces are imagined, socially constructed, and endlessly represented and consumed, then we cannot assume that "Europe" has an pre-existent identity"³⁹, esan genezake Bilbok ez duela berez dagokion identitate aurre-ezarritako bat. Ezta berez, jatorriz, tradizioz eta aurrez ezarririk datorkion hiri imaginario bat. Gatazkan daudden ikuspegi onorio, unean-uneko botere harreman, gizarte aktibazio, diskurtsoen zabalpen eta faktore soziolinguistik, ekonomiko eta politiko araberako emaitza den ustezko hiri imaginario bakar eta definiturik

ez dago. Kontradikzioz beteriko eta eraldaketaren menpe dagoen hiriri buruzko ikuspegi multzoa baino ez daukagu, gerora herritarrek hartu eta moldatu egiten dutena. McNeillek Europari buruz dioena aplikatuz, “Europe can be understood visually and experientially, in the landscapes we view, the cities we visit or live in, food we eat or cars we drive”. (McNeill, 2.004, 14. or). Bilboko hiri imaginarioa ere bukatu gabeko apropiazio eta desapropiazioen tentsiodun emaitza genukeela esango genuke. Ibaiaren korrontea bezalakoa. Sugearen sigi-sagaren antzekoa. Funtsezkoa baina, hurrengoa da: ikuspegi diferentek elkar elikatzen dute, gatazkan daude eta muga lausoak dituzte. Hots, itzal luzea du diskurtso hegemoniko-tradizionalak bilbotar guztiengan, hiriaren eraldaketa espaziala gidatu duten instituzioen ikuspegi *unibertsalizanteak* denengan du eragina eta aldi berean, ertzetako euskararen aldeko mugimenduen bultzadak euskararen aldeko urrats txikiena onartzeko prest ez daudenengan ere eragiten du. Eta dudarik ez, diskurtso bakoitzaren erreproduzioak moldaketa dakar ezinbestean, bere burua besteen aurrean biluzik eta salduta aurkitu nahi ez badu behintzat.

3. SUGEA BERE ZULOAREN BILA

Elkarrizketatutako 11 lagunen transkripzioen harira, sugearen hiru dantza.

3.1. Kontorsioa bizi

Planifikatzaileak hiria eraldatu du, baina planifikazioa eta hiritarren pausu, gustu eta lehenespenak ez doaz bide beretik. Ez dute logika bera eta ez dute bat egiten. Elkarrizketatu guztiek ez dute berdina aipatzen, baina oso interesgarria da nola planifikazio eta domestikazioaren eremuan, arkitekto izarrek diseinatutako azpiegiturak dauden hirian, berritze urbanistiko aldera mundu mailako adibide den hirian, herritarrek (batzuk behintzat) parkeetako eta inguruneetako espazio berdeak dituzten maiteen. *Urbanoaren* heziezintasuna, negoziagarritasuna, espontaneitatea erakusten dira hemen. Esan dezakegu Bilbo berriaren azpiegitura espektakularrak gora-behera, eta horien gaineko iritzi diferentek gora-behera, ia - inork ez duela estimatuenen artean halakorik aipatzen. Bilbao izarren ikurrak ez dira ageri. Aldiz, metroa bai agertzen dela aldaketa gustukoenen artean (gutxienez 4k aipatzen dute metroa edo garraio orokorrean). Hiria praktikatzan den espazio gisa ulertetik baino ezin dira ulertu bai gune berdeekiko bai garraio publikoekiko lehenespen hau.

Jasotako iritziak kokatzeko beste klabea begiradaren izaera eraikian aurkituko dugu. Hiritarrak habitusa osatzen du praktiken bidez, eta aldi berean habitusak garamatza praktiketara. Baldintza objektiboen emaitza dira pertzepzio sistemak, baina hiritarraren iragazitik igarotzen dira, eta hiritarrek badituzte beste iturri ideologiko - diskurtsiboak hiriaren espazioaren planifikatzaileak kontrolatu ezin dituenak. Kasu *urbanoaren* espontai-

Bi tendentzia ikusten ditugu sugearen mintzoa definitzerakoan elkarrizketatuen aldetik. Batetik diskurtso euskaldun gehienek gaztelerarekin soilik lotzen dute Bilbo. Bestetik, euskararekin aurretiazko harremanik izan ez dutenek (existitzen zenik ere ez zekiten 3k) nagusiki euskararekin lotzen dute Bilbo.

netateak eskaintzen dizkionak. Horrela uler dezakegu nola arlo artistikoan formazio espezifikoak duten elkarrizketatuek edota euskararen mugimenduekin harremana dutenek bereziki ikuspegi kritikoz edo zehatzaz aztertzen duten hiriaren eraldaketa. Bourdieurekin jarraituz, errepresentazioen mailan, ideologiaren mailan ezarri dituztelako euren gorputzek bizitakoak. Planifikatutako espazio horretan espero ez diren praktikak burutuz (Delgadok *apropiazio desegokiak* deitzen dituenen bidez: Guggenheimen parean *hondartzara joanez...*) edota planifikazioaren prozesu legegile eta estetikoaren gainean hausnartuz, sinismenok ideologiara ekar daitezke, euren oinarri eraikia azaleraziz.

3.2. Mintzoa aske

Bi tendentzia ikusten ditugu sugearen mintzoa definitzerakoan elkarrizketatuen aldetik. Batetik diskurtso euskaldun gehienek gaztelerarekin soilik lotzen dute Bilbo. Bestetik, euskararekin aurretiazko harremanik izan ez dutenek (existitzen zenik ere ez zekiten 3k) nagusiki euskararekin lotzen dute Bilbo. Eta azken hauek euren erantzunarekin komuneko errepresentazioak, *zentzu komuna* edo *objektibitatean* oinarritutako egi batzuk ari dira ezeztatzen. Hiriaren gaineko iritzietan jarraitu dugunean bezala, pentsatu liteke korporalizatu egin dutela eta jarraian ideologian txertatu euskara Bilbon bizirik dagoela eta hiriaren hizkuntza dela.

Bilbo gaztelerarekin lotzen duten euskaldunen erantzunak jorratuz, zer ote da hori, diskurtso zehatz baten emaitza? Edo bestela, euskararentzako berriak diren horiena bezain *bizitua* da? Horien guztien eremu hurbila, harreman-sarea, familia, lana... euskalduna da neurri handi batean, baina hiria erdalduntzat dute. Horren gako batzuk aztertzeke, jo dezagun elkarrizketatutako bi bizkaieradunek (Andoni —6 urte Bilbon— eta Maitane —6 urte Bilbon—) azaldutako eta gaur egun gainditurik duten praktika bat aztertzeke. Zein praktika? Bada Bilbon sartu bezain laster, zuzenean eta automatikoki, familiarrean ohiko zuten euskara utzi eta gaztelerara pasatzearena. Bilbon sartze hutsak eragiten zuen hizkuntza aldaketa euren artean hirugarren pertsonarik tartean agertu behar izan gabe. Nolanahi Bilbok iragazi edo gaztelerarantzko - grabitate lana egin eta hizkuntza aldatzen zien aita/ama-eme/alaba elkarrizketan. Pentsa liteke norbere euskara erabiltzea, bizkaiera erabiltzea, *anonimaturako eskubidearen* auto-ukapena zela herrietako bizkaieradunentzat, automatikoki baserritartzat (Bilbon hegemonikoa izan den diskurtsoaren baitan honek izan dituen asoziazio guztiak ezarri bere gain) hartuak izango baitziren. Espazio urbanoan ematen den sailkapen etendakoa hizkuntzaren doinuak ekarria kasu honetan.

Nolanahi, Bilbon sartu eta euskarari zuzenean uko egitea bukatu zen gure bizkaieradunentzat. Horrek zer esan ahal digu? Bada ñabarduraz betetzeaz gain, praktikak gainditu egin duela *Bilbo = erdara* asoziazioa, nahiz eta diskurtsiboki euren gan zutik iraun. Oraindik ere baina, Maitanek aipa-

tzen du nola euskalkiaren markak, estigmaren oihartzunak eta horren negoziaketak bizirik dirauten baita bere ikastolako lankideen aurrean ere:

"Baie askotan pasau jata, ez burlan, baina jajaa, 'ze dinozu?'... eta ikastolan adibidez gertatu zait eh (...) ez txarto ez ona, baizik eta, eh, baserritar kontuak dire, 'beitu, eh'... klaro niri askotan eta 'mira la aldeana esta qué dice', 'qué aldeana tío'" edo "erdaldunentzako ja da 'hablas muy cerrado, hablas muy cerrado, habla despacio y te entenderemos...".

Anonimaturako eskubidea egikaritzuz estigmatik ihes egin nahia oso fenomeno garaikidea dugu bestalde. Lehen kalean edo plazan *que no se nos note* zena, gaur egun gaztelaren eremu *natural* baten bazter-nahastaile gisa ez agertzeko *que no se me note* izan daiteke. Horri *Problemen arabera* ikasketa deitu ahal dioguna gehitu behar zaio. Maitanek aipatzen duen bi-zipenak: "Udaletxea: erdera, sentitan dot baia, mobida asko eduki dotez nik..." edo Maddik (nafarreraduna, 5 urte Bilbon) dakarrenak:

"Adibidez unibersidadian, EHUn, joaten nintzen ofizinetara eta egiten nien direktamente erderaz, bueno bueno.. oker euskaraz solasten badiet a ber ze iten diaten, hemen edozein paper... o sea, ze ba... ez nintzen fiatzen edo nik zer dakit...".

Euskara erabili nahi izatetik etorritako arazoen ikasketa bat plazaratzen digute. Aurreko bi faktoreen konbinazioak (anonimatu eskubidearen egikaritzaren eta problemen bidezko ikasketaren memoria korporal eta kulturalak) eta Bilbon ustezko egia den *Bilbo = erdara* binomioak eraikiko lukete euskararen urak eusten dituen harresi itxi bat.

Horma itxi horiek uholde arriskupean daude baina. Bi faktore nagusiren ondorioz:

1. Bilbo eta euskara jada lotuta daudelako, eta lotura horrek sortu dizkiolako jada pitzadurak harresiei. *Problemen bidezko ikasketari Euskararanzko gozamenaren bidezko ikasketa* kontrajartzen zaio. Bilbotarra eta eraginkorra.

2. Eszenarioa aldatu da eta gaztelera, euskara, galegoa eta erromania (erromintxela?) entzutetik, beste asko entzutera pasa gara. Ezin utzi Juanek (perutarra, 6 urte Bilbon) egiten dituen asoziazio erabat autonomo, txundigarri eta bikain hauek aipatzeke:

- *Gran Via: escaparate de toda la ciudad, rumano. En el Gobierno Civil lo escucho constantemente, tocando, con niños, chicas o señores*
- *Jardines de Albia: mixto, euskara y castellano*
- *Casco Viejo: un poco inglés, un poco euskara, un poco italiano*
- *San Mames: euskara*
- *Indautxu: mixto, español y euskara*
- *Deusto: euskara y español, también guaraní.*
- *Otxarkoaga: gitanos, romanesco*
- *Abandoibarra: euskara y castellano*
- *Zorrotzaurre: euskara*
- *Pozas: euskara - español*

Espazioa, estetika eta hizkuntzaren arteko hiruki honetan sakondu asmoz, ekarri dezagun espazio urraketarako beste hirukotea: posizio soziala, apropiazio ez-egokiak eta anonimaturako eskubidea. Elementu guzti horiek Bilbon elkar eragiten eta dialektikan ari diren euskararekiko ikuspegiaren alboan jarri ezkerreko, Bilbo berriak hizkuntzarekiko (hizkuntzekiko) zabaltzen dituen proiektzioak noraino diren benetako, noraino heltzen diren herritarrarengana eta noraino diren naturalizazio berrietarako oinarri aztertu dezakegu.

- *Hotel Domine: español, inglés*
- *Ayuntamiento: euskara en primer lugar, bai?, no sé si por obligación o qué... luego te contestan otra vez en castellano*
- *Arenal: más mezcla, euskera, castellano, árabe, rumano...*

Argi dago Gobernu Zibilean ilaran egon behar duenak beste era batean bizi duela hiria. Baita hizkuntzari begira ere.

3.3. Eremuarreak: Sugearen padurak

Posizio soziala, apropiazio ez-egokiak eta anonimaturako eskubidea dira hiru aldagai nagusienetakoak espazio publikoan herritarrak egiten duen antolaketa automatikoetarako, planifikatzailearen borondateetik landa. Ezin ahaztu ere estetika-gustu lehenespenetan, Bourdieuri jarraituz, klabe sinboliko batzuk atxikitzen direla talde - praktika kultural eta habitusak sortzean, balore sinbolikoak aukeratu eta norbere auto-definiziorako horietako batzuen aukera aktiboa lehenetsiz.

Nora heldu nahi dugu honekin? Bada espazio publikoen, eta orobat, hiri osoaren diseinu espazial integralean (izena barne) eta horren etorkizunera begirako proiektzioan, hiriaren beraren antolaketa urbanistikoko-ekonomiko eta sozialaz gain, osagai sinboliko-kulturalak ari zaizkiola atxikitzen plangintza oso horri. Baztertezikokoak direnak eta *harri* bihurtzen direnak (arkitekturaren – hirigintzaren bidez adibidez). Eta harrizko elementu horiez gain bestelakoetan ere gorpuzten direnak, adibidez nazioartekotzeko helburuz burutzen diren ekimenetan edo harri eta ekimen horiek bizidun bihurtzeko ematen zaizkien izendapenetan. Hain zuzen, *BEC*, *Bilbao World Series*, *Bilbao Arena* edo *Bilbao Night Marathon* bezalakoek ez dute soilik erai-kuntza eta ekimen zehaztetik. Ez dira soilik espazio publikoen erabilpen. Badira eraikia den hiri ikuspegi baten erakusle, badira hiriarri balore sinboliko multzo bat atxikitzen dion diseinu.

Espazioa, estetika eta hizkuntzaren arteko hiruki honetan sakondu asmoz, ekarri dezagun espazio urraketarako beste hirukotea: posizio soziala, apropiazio ez-egokiak eta anonimaturako eskubidea. Elementu guzti horiek Bilbon elkar eragiten eta dialektikan ari diren euskararekiko ikuspegiaren alboan jarri ezkerreko, Bilbo berriak hizkuntzarekiko (hizkuntzekiko) zabaltzen dituen proiektzioak noraino diren benetako, noraino heltzen diren herritarrarengana eta noraino diren naturalizazio berrietarako oinarri aztertu dezakegu.

Dena den, planifikazioa ez da determinazioa, ez espazio mailan, ez hizkuntzan. Eta bi hiruki horiek konbinaturik erakusten dute planifikatzailearen borondate oro-kontrolatzaileak kale egiten duela behin eta berriz. Batik bat herritarrak praktika zuzenen bidez korporalizatzen duelako espazioarekiko/hizkuntzarekiko harremana. Euskararekiko jarrerak diskurtso-tipoek planteatzen dutenetik urruti daude, eta norberaren esperientziak

elikatzen ditu lehenik eta behin, eta ondorioz diskurtsoek moldatu behar dute errealitatetik at geratu nahi ez badute.

Norabide honetan erresistentzia espazial txikiararako, askatasun eremuetarako, espazio aproposak ere eskaintzen ditu hiriak, Abandoibarrak barne. Intersztizioak (Teresa del Vallek erabilitako kontzeptua) adibidez. Hona hemen horietako bat: ibaiak, Arrupe Pasarelak eta Abandoibarrako pasealekuak sortzen dutena.



Begirada indiskretuetatik babesteko txokoak eskaintzen ditu, baita euria dagoenean babesa eta jolasteko gunea. Ohikoa da gazte koadrilak asteburu gauetan bertan edaten ikustea.

Beste era batera esanda, sakoneko egitura diren sinismenak azalera-tzeko bidean jartzeko praktikak burutzeko baldintza espazialak badaude, nahiz eta planifikatzaile urbanoak beste helburu batzuk izan. Hots, asfaltitik barneraturik dauzkagun ustezko *egi* horien kontra aurre egiteko tresna espazial eta kontzeptualak badaude. Izan ere, horiek *guregan* ditugun arren, bestelako praktiken bidez (korporalak eta teorikoak/ideologikoak) deseraiki eta berdintasunean berriak sortu ahal izateko aukerak eskaintzen ditu hiriak. Horren aitzindari, Ibaizabal ur kutsatu eta herritarrentzat *no-go* area baten gisa definitzen zuen *betiko egi konpartitu eta mugiezinare*n iraungitze data, praktikak⁴⁰ desafiatu eta kolokan jarri duena, nahiz eta ofizialki, bilbotarron *imaginario oso bakarrean* oraindik ere *galdutako espazioa* den.

Orain dela 100 urte baino gehiago euskararen heriotza aurreikusten zutenek Harria izan dute euren alde denbora guzti honetan, eta ziurtzat emaitza. Euskarak aldiz bilbotarron oinak eduki ditu alde, hizkuntza gaurdaino ekarriz, oinekin urbanoa eraiki eta lurra urratzen zuten bitartean. Ibaizabalez gain, ziur Abando azpitik doan Helgera errearen laguntza ere izan duela isilpeko eta isilarazitako bidai luze horretan.

4. KONKLUSIOA

Areatzan Boulevard tabernaren eraikina obretan egon zenean hasi ziren fatxada guztia estaltzen zuen publizitate panela jartzen, eta ordutik eraikin berean zein albokoan, luzaro darama euskarriren batek eskegita. Ia denak gaztelera hutsez, udal arautegi faltagatik. Dena den *Bilbao Gay Friendly*⁴¹ eta *Bilbao, en la cima del Mundo*⁴² dagoen garaiotan, zer hoberik negozioak gaztelera egiten direla, *cool*-tasuna ingelesetik datorrigula eta euskarak ikurriaren *florero* papera betetzen duela erakusten digun argazkia baino.



Slavoj Zizek-ek⁴³ Iruñean emandako hitzaldiko kronika irakurri bezain laster: “*Harria idazten du arkitekturak ideologiak jendaurrean esan ezin duena ere*”, nola ez pentsatu euskarak ere badituela porlan eta adreiluzko ideologiak?

Zorionez harria ere zapaltzeko dago, eta herritarren apropiatorako gaitasunak planifikatzailearen diseinuari espero gabeko bueltak emateko aukerak sortzen ditu. Hiria harria baita, baina baita oin eta lur ere. Eta Bilboren kasuan ur. Harria – oin – lur – ur. Harria da itxuraz indartsuena, gogorrena. Baina Ibaizabalek erakutsi bezala, hiltorian egonda berpizteko gaitasuna duenik bada, eta ez da porlana. *Urbanoaren* heziezintasuna eta ibaiaren heziezintasuna. Bilbon euskararen berreskurapenak agian ez du Harriaren laguntzarik izan orain arte, baina aliatu aparta du: heziezintasuna. Orain dela 100 urte baino gehiago euskararen heriotza aurreikusten zutenek Harria izan dute euren alde denbora guzti honetan, eta ziurtzat emaitza. Euskarak aldiz bilbotarron oinak eduki ditu alde, hizkuntza gaurdaino ekarriz, oinekin *urbanoa* eraiki eta lurra urratzen zuten bitartean. Ibaizabalez gain, ziur Abando azpitik doan Helgera errearen lagun-

tza ere izan duela isilpeko eta isilarazitako bidai luze horretan. Ahotsa berreskuratzen ari da, eta ezkutupetik Iberdrola Torreko azken solairuraino igo behar du hiri osoa bustitzeko. Baina ezinbestean Eileenek euskararen ikurtzat duen Arangoiti auzoa, Artxanda edo Arraizi itsatsita dauden auzoak zein ur-korronteak ahaztu gabe. Bilbon euskararen hazi izan diren oinak hortxe baitaude.■



Euskararen oinak: gazteak Deustuko Jaietan jolasean Euskaldunapean. Hauek zehazki euskaraz ari ziren.

OHARRAK

1. "Lo unico que evita que Nápoles sea el puerto más sucio de Europa (con todo lo malo que tal título entraña económicamente) es el puerto español de Bilbao, cuyos ciudadanos se las han ingeniado para convertir su principal fuente de recursos en una zona ambientalmente inhóspita". Michael Silverstein (1.991).
2. (2010/05/19). "Metropoli zirrarragarria. Singapurreko Lee Kuan Yew World Ciry Prize saria eman diote Bilbori, hiriak azken urteetan izan duen eraldaketa dela eta; agintariak ekainaren 29an jasoko dute saria". Berria, 44. or.
3. <http://kaleakaske.blogspot.com>
4. (2005/07/16). "Bilbao vivió ayer una jornada histórica con el arranque del evento internacional más importante que jamás haya tenido lugar en la capital vizcaína. Las World Series by Renault no defraudaron las expectativas creadas entre el público". El Correo jasotako kronikaren hasiera.

5. <http://www.bilbao.net/noticias/doc20091132418743.pdf>-en eskegia dirulaguntza deialdia.
6. (2010/06/07). "Errekalde, Larraskitu eta Iturrigorriaga-Peñascal artean aurkitzen den San Antonio Parkea hiriko lehen hondartza berdea izango da". *Albisteak*. www.bilbao.net-etik jaso
7. Delgado, Manuel (2.008). *Apropiaciones inapropiadas. Usos insolentes del espacio público en Barcelona*. <http://tragasaliva.wordpress.com/2008/04/14/apropiaciones-inapropiadas-usos-insolentes> - en eskegia.
8. Delgado, Manuel. (2.007). *Sociedades movedizas. Pasos hacia una antropología de las calles*. Anagrama. Barcelona.
9. http://karkardeustu.blogspot.com/2010/03/bilbao-ciudad-de-vacaciones_29.html sarreran (Deustuko euskara elkarteko gazteen blogean) ikus daitezke hiritik zehar zabaldutako panel handi horietako batzuk.
10. Alondegiaren inaugurazioan Berriako kazetariak kronikan aipatutako gertaera. Berria (2010/05/19). "Definieztina".
11. Torre, Josu.(2010/06/03). "Ez dakite". Deia. www.deia.com-etik hartua.
12. Kintana, Xabier. (2010/06/05). "Bilboko Alondegia". www.gara.com-etik hartua.
13. Philippe Starcken esanak inaugurazioan Berria (2010/05/19). "Definieztina". Berria. 1. eta 34. or.
14. Del Valle, Teresa. (1.997). *Andamios para una nueva ciudad lecturas desde la antropología*. Madrid: Editorial Cátedra.
15. www.bilbao.net udal web orri korporatibotik hartutako datuak. 2.006ko Eustaten datuen arabera, %24,3 euskalduna da, eta beste %24 ia-euskalduna.
16. Kale Erabileraren datua Soziolinguistika Klusterrak 2.006ko Urriaren egindako Kale Neurketatik aterata dago.
17. "ser no es un predicado real, es decir el concepto de algo que pueda añadirse al concepto de una cosa. Es simplemente la posición de una cosa o de ciertas determinaciones en sí". [ref: I. Kant. (1.989 – 1.762). *El único fundamento posible de una demostración de la existencia de Dios*. Barcelona: PPU 54. or.] (Delgado, 2.007, 68. or.)
18. Etxegoien, Fermin. (2004). *Neurona eta zeurona. Hizkuntza estetika bezala*. Iruña: Pamiela.
19. Silva, Armando. (2.001). Algunos imaginarios urbanos desde centros históricos de América Latina. En Carrión, Fernando (Ed.), *La ciudad construida. Urbanismo en América Latina. Memoria de II Jornadas Iberoamericanas de Urbanismo* (397 - 404 or.). Quito: Flaco-Junta de Andalucía. <http://www.flaco.org.ec/docs/urbanismo.pdf> - en eskegia.
20. De Castro, Ana. (2009/01/31). "La normalización del euskara: un esfuerzo compartido". Deia, 4. or.
21. (2.010/06/01). "El palacio de deportes se llamará Bilbao Arena". El Correo. www.elcorreo.com - etik jaso.
22. Méndez, Lourdez. (2.004). *Cuerpos sexuados y ficciones identitarias. Ideologías sexuales, deconstrucciones feministas y artes visuales*. Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer.
23. Lizundia Zamalloa, José Luis. (2.010/05/02). "Idiomas senatoriales". El Día, 15. or.
24. Elordui, Agurtzane. (1.996). Mailakako Hizkuntz Desagertzea: Eragile soziologiko eta ezaugarri soziolinguistiko nagusiak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 19. zbkia, 11-35 or.
25. "Al menos el alcalde Azkuna volvió a dar muestras por la mañana de su ilustración, no olvidándose de citar en su discurso a Unamuno y Blas de Otero". Ugarte, Pedro. (2.009). *El espía invitado. Crónica de las fiestas de Bilbao (1998-2007)*. Bilbo: Bizkaiko Gaiak – Temas Vizcaínos (408 – 409) - BBK, 28. or.
26. Azurmendi, Joxe. (2.006). *Espainiaren arimaz*. Donostia: Elkar. 11. kapituluaren hain zuzen: "Hizkuntzaren Izpiritua, edo Hizkuntza eta Izpiritua".
27. Bilboko Lore Jokoetan Unamunok 1.901eko abuztuko 26an emandako konferentziari hasiera ematen zion esaldia berau.
28. bbk-ren Temas Vizcaínoseko hainbat liburutan adibidez
29. *El Lexicón Bilbaino* eta *Txomin del Regato* tradizio berean kokatu ditzakegu
30. Goyoaga, Baldomero. (1.882). *Album de unos locos*. Bilbao. Ereño Altuna, Jose Antonioren edizioa. (2.002). Bilbo: Udal Liburutegi Klasikoa, Bilboko Udala.

31. Mioma, J. (2.009). Deustuko euskara 1.936 baino lehen (eta II). *Prest*, 96, 11. orrialdea.
32. Juan Madariaga Orbeak bere *Apologistas y Detractores de la Lengua Vasca* (2.008) liburu mardulean erakutsi bezala, hizkuntzaren balizko gaitasun eta ezintasunei buruzko ika-mikek gutxienez XV mendetik naturalizazio prozesu luze baten menpe utzi dute euskara.
33. Savater, Fernando. (25/04/10). "Babel sin barbaridades". El Correo. www.elcorreo.com – etik hartua.
34. Bourdieu, Pierre. (1993). Génesis y estructura del Campo burocrático. *Actes del Reserche en Sciences Sociales*, 96-97, 49-62 or.
35. Mexikoko 6 egunkaritan egindako azterketa baten prentsa eta argazkigintzaren arteko harremanak behatu eta hiria bera ezkutatzeko estrategia hiriaren irudien eta espazio publikoen oso presentzia bazterrekoa detektatzean ondorioztatu zuen. Silva, Armando, 2.001 "Algunos imaginarios urbanos desde centros históricos de América Latina", "La ciudadconstruida. Urbanismo en América Latina" bilduman – Memoria de II Jornadas Iberoamericanas de Urbanismo, Quito, Editor Carrión Fernando.
36. "Nabokov contaba que para conseguir el sentido común necesario para escribir, lo importante era estar con los actores" decía durante la ceremonia de apertura el escritor Kirmen Uribe. (...) El acto, celebrado entre las casetas del Arenal, congregó a diversos personajes del mundo de las letras, como Toti Martínez de Lezea, Juan Bas y Jon Arrebxe (...)." (2010/06/04). "Azkuna: Podemos prescindir de los políticos, pero nunca de los escritores". El Correo. www.elcorreo.com-etik hartua.
37. Mendez, Lourdes. (2008/02/27). "Emakume artista bakar bati ee ez zaio aitortu korronte baten aitzindaria izatea". Berria. www.berria.info – tik jaso.
38. Unamuno, M. 2.002 *Recuerdos de niñez y mocedad*. Bilbao: Bibliotex, Deia bilduma. *Bertan Bilbo* (Zu-berogoiia anaiak, 2.008) liburuan jaso.
39. McNeill, D. (2.004). *The New Europe: Imagined Spaces*. London: Hodden Arnold. 9. or.
40. Azken adibidea 2.010eko azaroaren 25an Arrupe pasabidetik neoprenoa jantzita jauzi egin zuen lagunarena. Arratsalde, hainbat orduz, www.elcorreo.com atariko albiste nagusia izan zen mutil horren jauzi akrobatikoaren bideoa. Oso interesgarriak bide batez bertan jasotako komentarioak, ibaiarekiko ikuspegiaren erakusle. Hemen eskegia dago: <http://www.elcorreo.com/vizcaya/20101125/local/salto-invertido-hacia-atras-201011251806.html>
41. Arregi, Rikardo. 2010/06/02. "Bilbao Gay Friendly". Deia. www.deia.com – etik jaso.
42. 2010/06/30 Portadako goiburuetako bat. Deia, 1. or.
43. 2010/06/11."Ideolojiak esan ezin duena idazten du harriak". Berria. www.berria.info – tik jaso.